



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko maiatzaren 7a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Irankorrek, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren antolamendua (5. or.).

III. Helburua eta norainokoa (9. or.).

IV. Iritzia (10. or.).

IV.1 2017ko urteko kontuei buruzko auditoretza finantzarioko iritzia (11. or.).

IV.2. Legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (11. or.).

V. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuen laburpena (12. or.).

V.1. 2017ko aurrekontuaren likidazioa (12. or.).

V.2. 2017ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza (13. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakina 2017ko abenduaren 31n (13. or.).

V.4. 2017ko abenduaren 31ko balantzea (14. or.).

V.5. 2017ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (15. or.).

VI Ondorioak eta gomendioak (16. or.).

VI.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko aurrekontua (16. or.).

VI.2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoera ekonomiko eta finantzarioa 2017ko abenduaren 31n (18. or.).

VI.3. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena (20. or.).

VI.4. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (21. or.).

I. eranskina. Adierazle ez finantzarioen bilakaera (40. or.).

II. eranskina. Unibertsitateko egiazko langileen bilakaera abenduaren 31n (41. or.).

III. eranskina. Unibertsitatea-gizartea fundazioaren jardueri buruzko adierazleak (42. or.).

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko urteko kontuak.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Unibertsitatearen 2017ko ekitaldiko informazio garrantzitsu gisa, honako hau aipatu behar dugu:

- 78,20 milioiko aurrekontu-gastuak egin ditu, eta 76,99 milioiko diru-sarrerak izan ditu.
- Unibertsitateko langileak, 2017ko abenduaren 31n 1.615 ziren; horietatik, ehuneko 56 irakasleak dira.
- 2017/2018 ikasturteko ikasleen kopurua 8.059koa da.

Honako hauek dira egindako lanetik ateratako konklusio nagusiak:

Lehena. Unibertsitatearen 2017ko abenduaren 31ko urteko kontuek fideltasunez erakusten dute, alderdi esanguratsuetan, haren ondarearen, haren finantza-egoeraren eta haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoaren irudia.

Bigarrena. 2017ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Hirugarrena. 2017ko abenduaren 31n, unibertsitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa saneatua da. Nabarmendu behar dugu honako hauek dituela: 4,41 milioi euroko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina; 3,26 milioi euroko zorpetzea, eta 7,72 milioi euroko diruzaintzako saldoa. Hala eta guztiz ere, adierazle batzuek –esate baterako, aurrekontu-emaitza ez-finantzarioak eta aurrezki gordin eta garbiak– okerrera egin dute 2016koekin alderatuta.

Laugarrena. Oro har, Ganbera honek aurreko txostenetan egindako gomendioak ezartzen ari da Unibertsitatea.

Bosgarrena. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eraginetarako, Unibertsitatea Foru Komunitateko Administrazioaren "administrazio publikoen" sektorekoa da. Horrenbestez, sektore horretan egiaztatu beharra dago, orokorrean, aipatutako lege organikotik ateratzen diren printzipioen betetzea. 2017an, Ganbera honek ekitaldi horretako Nafarroako kontu orokorrei buruz egindako txostenarekin bat, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak betekizun guztiak bete ditu, gastu-arauarekin lotutakoa izan ezik.

Seigarrena. 2017ko abenduaren 29an, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena sinatu zuten, Unibertsitateari egonkortasuna eta bideragarritasuna bermatzeko.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 2018rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (hemendik aurrera, Unibertsitatea) urteko kontuak, 2017ko ekitaldikoak, fiskalizatu ditu. Kontu horiek Unibertsitatearen eta Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren (hemendik aurrera, Fundazioa) kontuak hartzen dituzte.

Unibertsitatearen urteko kontuak 1994ko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren arabera egin dira, eta Fundazioaren urteko kontuak, berriz, irabazi asmorik gabeko entitateentzako 2011ko kontabilitate planaren arabera.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak Unibertsitatearen antolamendua jasotzen du; hirugarrenak auditoretzaren helburuak eta norainokoa; laugarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasuna betetzeari buruzkoa azaltzen du, Unibertsitatearen 2017ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez; bosgarren atalean urteko kontu horien laburpen bat jaso dugu. Azkenik, seigarrenean, Unibertsitatearen 2017ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoerari eta egoera finantzarioari buruzko konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu; halaber, Ganbera honen aurreko txostenetako eta kudeaketaren beste arlo garrantzitsu batzuetako gomendio nagusien jarraipena egiten dugu.

Txostenak, gainera, hiru eranskin dauzka: lehenengoa finantzarioak ez diren adierazle batzuen bilakaerari buruzkoa da; bigarrena Unibertsitatearen egiazko langileen bilakaerari buruzkoa, eta hirugarrena, azkenik, Fundazioaren jardueren adierazleei buruzkoa.

Txostenak Unibertsitatearen 2017ko ekitaldiko oroitidazki ekonomikoaren laburpen bat badauka¹

Gure jarduketan, kontuan hartu ditugu Unibertsitateko Kontu-hartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuak egindako txostenak, eta bereziki 2017ko urteko kontuei dagokiena.

Fundazioaren kontuak direla eta, kanpoko profesionalak egindako auditoretza bat badago, eta aldeko iritzia biltzen duen txostena eman zuten.

2016ko otsailean, Ganbera honek Unibertsitatearen 2014ko urteko kontuei buruzko fiskalizazio txosten bat argitaratu zuen.

Azterketa lana 2018ko urritik 2019ko urtarrilera bitartean egin du auditoretzako lau teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari, kudeatzaileari eta Gizarte Kontseiluko buruari azaldu zitzaizkion, egokitzen jotzen zizuten alegazioak egin zitzaizkion, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Unibertsitateko eta Fundazioko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

¹ Oroitidazki horren dokumentu osoa Unibertsitatearen Gardentasun Atarian ikus daiteke, Unibertsitatearen web-orrian (www.unavarra.es).

II. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ANTOLAMENDUA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa zuzenbide publikoko erakunde bat da, Nafarroako Parlamentuak 1987an sortua. Nortasun juridiko propioa du, eta goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa irakaskuntzaren eta ikerketaren bidez gauzatzeko eginkizuna du esleitua.

Gobernu eta administrazio organoak

Unibertsitatearen gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo eta pertsona bakarreko organo orokor eta partikularren bidez betetzen dira:

Kide anitzeko organoak

- Orokorrak: Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua eta Unibertsitateko Klaustroa.
- Partikularrak: Zentroko Batzarra eta Saileko Kontseilua.

Pertsona bakarreko organoak

- Orokorrak: errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia eta kudeatzailea.
- Partikularrak: dekanoa edo eskolako zuzendaria eta saileko zuzendaria.

Gizarte Kontseilua gizarteak Unibertsitatean parte hartzeko kide anitzeko organoa da. Gobernu Kontseilua Unibertsitateko gobernu-organoa da, eta errektoreak, idazkari nagusiak, kudeatzaileak, errektoreordeak eta Unibertsitateko erkidego osoko 32. ordezkariak osatzen dute.

Unibertsitateko Klaustroa Unibertsitateko erkidegoaren ordezkari-organoa goren da, eta errektoreak, idazkari nagusiak, kudeatzaileak eta Unibertsitateko erkidegoko 120 kideak osatzen dute.

Irakaskuntzaren eta ikerketaren arloko antolamendu-egitura

Unibertsitateak bi campus dauzka, Iruñekoa eta Tuterakoa. Unibertsitatearen irakaskuntzarako eta ikerketarako oinarriko antolamendu-egiturak, 2017an, honako hauek hartzen ditu:

- Lau fakultate: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Zientzia Juridikoen Fakultatea eta Osasun Zientzien Fakultatea.

- Bi goi-mailako eskola tekniko: Nekazaritza Ingeniarien Goi-mailako Eskola Teknikoa eta Industria Ingeniarien eta Telekomunikazioko Ingeniarien Goi-mailako Eskola Teknikoa.

- 22 sail. Gobernu Kontseiluaren 2017ko azaroaren 27ko erabakiaz lehendik zeuden 22 sailen azkentzea onetsi zen, 11 sail berri onetsi ziren² eta behar ziren xedapenak eman ziren akordio hori 2018ko maiatzaren 2tik aurrera eraginkor egiteko.

- Doktoretza eskola bat (EDONA).

- Bost ikerketa zentro: Agrobioteknologiako Institutua³; Institute of Smart Cities (ISC); Institute for Advanced Materials (INAMAT); Institute for Advanced Research in Business in Economics (INARBE), eta Institute on Innovation & Sustainable Development in Food Chain (ISFOOD).

- Elektronikaren eta Komunikazioaren arlorako I+G zentro bat: Jerónimo de Ayanz zentroa.

- 10 katedra: Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedra (CIPARAIS); Energia Berriztagarrien Katedra; Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko Unesco Katedra; Lidergoa, Estrategia eta Enpresaren Katedra; Nafarroako Ondare ez materialaren Katedra;

² Agronomia, Bioteknologia eta Elikadura; Zientziak; Osasun Zientziak; Giza eta Hezkuntza Zientziak; Zuzenbidea; Ekonomia; Estatistika, Informatika eta Matematika; Enpresen Kudeaketa; Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoa eta Komunikazio Ingeniaritza; Soziologia eta Gizarte Lana.

³ Titulartasuna CISCeekin eta Nafarroako Gobernuarekin partekatzen du

Grupo AN katedra; Mutua Navarra Katedra; ADItech Katedra; Iritzi Publikoari eta Berrikuntza Sozialari buruzko Nafarroako Parlamentua Katedra; Nafarroako Industria Ingeniari Graduatuen eta Industria Ingeniari Teknikoen 4.0 Industriaren Katedra.

- Hezkuntzaren Berrikuntzarako goi-mailako ikastegi bat.

Egitura administratiboa

Bere jarduera kudeatzeko, Unibertsitateak errektorearen, errektoreordeen/Idazkaritza Nagusiaren eta Gai Ekonomikoetako kudeatzailearen/kudeatzaileordearen menpe dauden zerbitzu eta unitateak dauzka.

Lotutako entitateak

Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko erabakiaz sortu zen, 24.040 euroko ekarpenarekin. Sorrerako helburu gisa zuen elkarrizketa sustatzea eta Unibertsitatearen eta Nafarroako gizartearen arteko lankidetzaren bideratzea.

Fundazioaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoak Patronatuko Batzarra, Batzar Zuzentzailea eta zuzendari kudeatzailea dira.

Fundazioa da Unibertsitateak partaidetzaren gehiengoa duen entitate bakarra.

Gainera, Unibertsitateak honako entitate hauetan hartzen du parte:

Entitatea	Xede soziala	Urtea inbertsioa	kopurua 2017-12-21eko partaidetza
Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa	Unibertsitatea-Gizartea lankidetzaren	1997	24.040
Start Up Capital Navarra SA	Enpresen sustapena	2000. eta 2017. urteak	34.595
Portal Universia SA	Teknologia berriak	2001	13.465
Sigma Gestión Universitaria AIE	Kudeaketa administratiborako tresna informatikoak	1996. eta 2002. urteak	200.137
Amado Alonso Fundazioa	Sortzailearen bizitzaren eta obraren zabalkundea egitea	2001	1.202
Campus Iberus Partzuergoa	Ebro Ibarreko Nazioarteko Bikaintasun Campusa	2012	3.000
Nadetech Innovations SL ⁽¹⁾	Laborategiko ekipamenduaren garapena	2015	8.000
Naudit Higt Performance Computing and Networking SL ⁽¹⁾	Teknologia berrien arloko soluzioak merkaturatzea	2015	1.782
Movalsys SL ⁽¹⁾	Ordenagailuen eta softwarearen programazioa	2016	1.150
Eversens SL ⁽¹⁾	Instrumentazioko eta neurketako ekipamenduak eta plataformak diseinatu eta garatzea	2017	417
Bioinsetics SL ⁽¹⁾	Mikroorganismoen karakterizazio molekular eta biologikoa	2017	1.000
Partaidetza, guztira			288.788

⁽¹⁾ Unibertsitatearen oinarri teknologikoko edo spin-off-eko enpresak⁴

⁴ Unibertsitateetan garatu diren prozesu, produktu edo zerbitzuak ustiatzeko unibertsitate-erkidegoko kideek sustatzen dituzten enpresa- ekimenak.

Halaber, Jaime Brunet Fundazioak bere helbide soziala Unibertsitatean du; Fundazio horren helburua da giza duintasunarekiko, oinarritzko askatasunekiko eta giza eskubideekiko errespetua sustatzea.

Araubide ekonomiko-finantzarioa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

Unibertsitateak 2017rako finantzaketa-hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin, zeinean ezarri baitzen Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen zuela Unibertsitatearen irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren funtzionamendu normala bermatzeko eta haren autonomia finantzarioa sustatzeko. Unibertsitateak Nafarroako goi-hezkuntzaren zerbitzu publikoa betetzeko mandata eraginkortasunez kudeatzeko konpromisoa hartu zuen, eta, horretaz gainera, 2017ko urtean zehar kostuen kontabilitatea ezartzen jarraitzekoa, zeina islatuko baita eredia 2014ko eta hurrengo urteetako datuetan aplikatzean.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretako 2017rako finantzaketa 55,17 milioi eurokoa da. Finantzaketa hori osatu zen Unibertsitateari baimena emanaz gastu orokorretarako 2016ko diruzaintzagerakina, 1,66 milioi eurokoa, erabil dezan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak 123. artikuluan ezartzen du ezen Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokiola Foru Komunitateko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra (KPPO) onestea; berariazko onespenerik ez badago, Estatuko sektorerako onetsitako KPPOa aplikatuko da.

2017an, ez da Foru Komunitaterako KPPOa onetsi.

Unibertsitateak, 2017ko ekitaldian, 2010eko KPPOko kontabilitate-arau eta -printzipio batzuk aplikatu ditu; halere, Unibertsitateko urteko kontuak 1994ko KPPOaren arabera aurkeztu dira.

Bestalde, kontabilitate analitikoaren ezartzeko prozesua pertsonalizatzeko fasea amaitu da. Unibertsitateko plan pertsonalizatua –prozesuaren lehen atala– Estatuko Administrazioaren Kontuhartzaitza Nagusiak (EAKN) onetsi zuen 2016ko apirilean. Une honetan, unibertsitateentzako kontabilitate analitikoaren eredia egokitzen ari zaie ezartze-aldian sortzen joan diren beharrezko berriei –prozesuaren bigarren atala–, eta aurreikusita dago haren mekanizazio fasea 2020-2021 urteetan amaitzea.

2016-2019 plan estrategikoa

Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak 2016ko maiatzaren 23an onetsi zuen Unibertsitatearen 2016-2019 aldirako Plan Estrategikoa. Haren lan-ildoak sei ardatz estrategikoren arabera biltzen dira: Pertsonak, Antolamendua eta Baliabideak, Prestakuntza, Ikerketa, Ingurunea eta Nazioartetzea, eta horietako bakoitzean helburu estrategikoak, helburu operatiboak, ekintzak, adierazleak eta arduraduna zehazten dira.

Adierazle ez finantzarioen bilakaera

Txosten honen I. eranskinean, Unibertsitateari buruzko izaera ez finantzarioko adierazle batzuen 2015-2017 urteetako bilakaera erakusten dugu.

Arau-esparrua

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Unibertsitateari 2017an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Unibertsitatea Publikoari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea.
- Unibertsitateari buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa (LOU), apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriari buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak aldatua.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea.
- Unibertsitatearen estatutuak, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuak onetsiak eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko erabakiak aldatuak.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 20ko 2/2012 Lege Organikoa (LOEPSF izenez ezagutzen dena).
- Unibertsitatearen aurrekontua, 2017ko ekitaldikoa, eta hura betetzeko oinarriak eta ixteko eta likidatzeko erregulazio-arauak.
- Irakasleen eta ikertzaileen arloko estatuko araudia.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen arloari, ogasun publikoari, kontratazio administrazioari eta diru-laguntzak emateari buruzko foru araudia.

Honako hauek dira 2017. urtean Fundazioari aplikatzekoak zaizkion arauak:

- Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren estatutuak.
- Fundazioei buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea.
- Urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako jarduketa planaren eredia onesten dituenak.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Honako hauek dira gure lanaren helburuak:

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da gure iritzia ematea honako honi buruz: ea Unibertsitatearen 2017ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten duten alderdi esanguratsu guztiei buruz, hots, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Urteko kontuen finantza-auditoretzarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Unibertsitateak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Gure lanaren norainokoa Unibertsitatearen urteko kontuak dira; kontu horiek ekitaldian egiten diren aurrekontu, ondare eta diruzaintza arloetako eragiketa guztiak bilduko dituzte, eta, funtsean, honako agiri hauek edukiko dituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Emaidza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Oroitidazkia.
- Fundazioaren urteko kontuak: balantzea eta emaitzen kontua.
- Urteko kontu bateratuak: balantze bateratua eta emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontu bateratua.

IV. IRITZIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak fiskalizatu ditugu, 2017ko ekitaldikoak. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen V. atalean; Unibertsitatearen oroitidazkia, berriz, osorik erantsi dugu.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erantzukizuna

Gerentzia da, errektorearen zuzendaritza pean, urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Gizarte Kontseiluak onetsiko ditu, halako moduz non irudi zehatza azal dezaten Unibertsitatearen ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Unibertsitatearen 2017ko urteko kontuak 2018ko ekainaren 25ean onetsi zituen Gizarte Kontseiluak.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Gerentziak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta, batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 delakoa ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Lanaren helburuaren eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak erabiltzen dira. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu dituzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere.

Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoretzako eta legezkotasunaren betetzearen fiskalizazioko gure iritziari eusteko.

IV.1 2017ko URTEKO KONTUEI BURUZKO AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

auditoretza finantzarioko iritzia

Gure iritzian, erantsitako urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Unibertsitatearen 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Unibertsitatearen 2017ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Beste gai garrantzitsu batzuei buruzko lerrokada

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eragine-tarako, Unibertsitatea Foru Komunitateko Administrazioaren "administrazio publikoen" sektorekoa da, eta sektore horretan egiaztatzen da, oro har, aipatutako lege organikoaren printzipioen bete-tzea.

2017an, Ganbera honek Nafarroako kontu orokorreari buruz emandako txostenaren arabera⁵, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak bete egin ditu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak, gastu-arauarekin lotutakoa izan ezik.

⁵ Txostena 2018ko azaroan argitaratu da, eta Kontuen Ganberaren web-orrian ikus daiteke (www.camaradecomptos.navarra.es).

V. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2017ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA

V.1. 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordaindutakoa
1 Langile-gastuak	54.063.554	5.229.811	59.293.365	57.543.752	73	57.536.474
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11.606.663	8.348.024	19.954.687	13.753.855	18	11.821.170
3. Finantza-gastuak	38.000	0	38.000	30.732	0	30.732
4. Transferentzia arruntak	810.750	1.996.368	2.807.118	2.047.130	3	1.748.551
6. Inbertsio errealak	3.791.231	1.364.564	5.155.795	4.807.069	6	3.773.934
8. Finantza-aktiboak	5.000	1.012	6.012	6.011	0	5.011
9. Finantza-pasiboak	131.835	0	131.835	11.985	0	11.986
Guztira	70.447.033	16.939.779	87.386.812	78.200.534	100	74.927.857

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzea (%)	Kobratutakoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	12.939.029	2.429.577	15.368.606	14.709.310	19	14.049.106
4. Transferentzia arruntak	54.862.341	7.028.205	61.890.546	60.470.626	79	56.629.134
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	163.600	0	163.600	131.179	0	71.900
6. Inbertsioak besterentzea	0	0	0	2.751	0	2.751
7. Kapital-transferentziak	819.850	3.475	823.325	703.352	0	287.610
8. Finantza-aktiboak	1.662.213	6.502.915	8.165.128	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	975.607	975.607	971.243	1	971.243
Guztira	70.447.033	16.939.779	87.386.812	76.988.461	100	75.011.744

V.2. 2017ko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako bete-behar garbiak	Diru-kopuruak
1 (+) Eragiketa ez-finantzarioak	76.017.218	78.182.538	-2.165.320
2. (+) Finantza-eragiketak	0	6.011	-6.011
I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)	76.017.218	78.188.549	-2.171.331
II. FINANTZA-PASIBOEN ALDE GARBIA	971.243	11.985	959.258
III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (I + II)	76.988.461	78.200.534	-1.212.073
3. (+) Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako kredituak			1.578.047
4. (-) Finantzazio desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideak direla eta			
5. (+) Finantzabide desbideratze negatiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan			44.926
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita edo defizita (III + 3 + 4 + 5)			410.899

V.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2017ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptuak	2016ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
1 (+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.863.746	1.813.494
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.338.207	1.976.717
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	994.572	608.139
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	747.383	739.445
(+) Merkataritzako eragiketak		
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak		
(-) Kobratzeko zailak diren saldoak	1.216.416	1.510.807
2 (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	5.370.408	5.667.141
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	3.213.170	3.272.718
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.020	2.020
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.155.218	2.392.476
(+) Merkataritzako eragiketetatik		
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak	0	73
3 (+) Funtz likidoak	15.960.506	14.716.857
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+-2+3)	12.453.845	10.863.210
II. Atxikitako diruzaintza-gerakina	6.502.915	6.457.990
III. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II)	5.950.930	4.405.220

V.4. 2017ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEA

AKTIBOA	2016	2017	PASIBOA	2016	2017
A) IBILGETUA	127.332.165	125.137.400	A) FUNTS BEREKIAK	136.819.660	132.536.461
II. Ibilgetu ez-materialak	479.673	623.683	I. Ondarea	127.912.262	127.912.262
2. Jabetza industrialak	548.210	562.114	1. Ondarea	123.083.338	123.083.338
3. Aplikazio informatikoak	9.065.356	9.386.134	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
6. Bestelako ibilgetu ez-materialak	64.705	129.919	5. Lagatako ondarea	-556.475	-556.475
8. Amortizazioak	-9.198.598	-9.454.484			
III. Ibilgetu materialak	126.564.714	124.220.328	III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	12.371.795	8.825.277
1. Lursailak eta eraikinak	168.378.028	168.802.957	1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	12.371.795	8.825.277
2. Instalazio teknikoak eta makineria	47.544.329	48.407.292			
3. Tresneria eta altzariak	17.489.860	17.820.465			
4. Bestelako ibilgetua	20.179.650	20.182.859			
6. Amortizazioak	-127.027.153	-130.993.245	IV. Ekitaldiko emaitzak	-3.464.397	-4.201.077
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	287.778	293.389	B) ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	529.984	98.189
1. Epe luzeko baloreen zorroa	282.777	288.788	c) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.292.202	3.251.460
3. Epe luzeko eratutako fidantza eta gordailuak	5.001	4.601	II. Epe luzeko bestelako zorrak	2.292.202	3.251.460
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	0	2. Bestelako zorrak	2.292.202	3.251.460
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	17.824.253	16.530.424			
II. Zordunak	1.863.747	1.813.567	D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	5.514.571	5.781.713
1. Aurrekontuko zordunak	2.332.779	2.584.856	III. Hartzekodunak	5.382.392	5.679.199
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	193.645	227.011	1. Aurrekontuko hartzekodunak	3.215.189	3.274.738
4. Administrazio publikoak	553.739	512.434	2. Aurrekontuko ez diren hartzekodunak	240.035	268.238
5. Bestelako zordunak	0	73	4. Administrazio publikoak	1.853.195	2.052.630
6. Hornidurak	-1.216.416	-1.510.807	5. Beste hartzekodunak	11.985	11.985
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	8.500.000	7.000.000	6. Hartutako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	61.988	71.608
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	8.500.000	7.000.000	IV. Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	132.178	102.514
IV: Diruzaintza	7.460.506	7.716.857			
Guztira (A+B+C)	145.156.417	141.667.824	Guztira (A+B+C)	145.156.417	141.667.824

V.5. 2017ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

ZORRA	2016	2017	HARTZEKOA	2016	2017
A) GASTUAK	76.217.426	80.680.052	B) DIRU-SARRERAK	72.753.029	76.478.975
1. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzi-onamendu gastuak	73.503.371	78.630.176	1. Zerbitzuak ematea	13.736.144	12.488.928
a) Langile gastuak:	54.003.258	57.796.568	a) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko tasak	1.162.534	1.112.055
a.1) Soldatak, lansariak eta antzekoak	46.567.165	49.691.546	b) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko prezio publikoak	12.240.793	11.061.195
a.2) Gizarte-zamak	7.436.093	8.105.022	c) Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu bereziko prezio publikoak	332.817	315.678
c) Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	7.097.837	7.007.446	2. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	2.595.251	2.795.979
d) Trafiko horniduretako aldeak	-571.148	294.391	a) Diru-itzultzeak	20.441	16.330
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	-571.148	294.391	c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	2.540.979	2.775.002
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	12.794.000	13.501.039	c.1) Diru-sarrera osagarriak eta ohiko beste batzuk	2.432.519	2.343.207
e.1) Kanpoko zerbitzuak	12.787.283	13.480.137	c.2) Arrisku eta gastuetarako horniduraren gaindikina	108.460	431.795
e.2) Tributuak	-60.276	20.902	f) Beste interes batzuk eta antzeko diru-sarrerak	28.283	3.574
e.3) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	66.993	0	f.1) Beste interes batzuk	28.283	3.574
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	176.828	27.413	g) Kanbioan izandako alde positiboak	5.547	1.72
f.1) Zorrek direla eta	57.634	27.413	3. Transferentziak eta diru-laguntzak	56.387.551	61.173.978
f.2) Finantza-inbertsioen galerak	119.194	0	a) Transferentzia arruntak	51.639.279	54.467.279
h) Kanbioan izandako alde negatiboak	2.595	3.319	b) Diru-laguntza arruntak	4.746.033	6.003.347
2. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.663.684	2.047.130	c) Kapital-transferentziak	0	699.877
a) Transferentzia arruntak	26.065	56.143	d) Kapitaleko diru-laguntzak.	2.239	3.475
b) Diru-laguntza arruntak	1.637.619	1.990.987	4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	34.083	20.090
c) Kapital-transferentziak	0	0	a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	2.120	2.751
3. Ez-ohiko galera eta gastuak	1.050.371	2.745	c) Aparteko diru-sarrerak	31.963	17.339
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	48.773	-1	d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	0	0
c) Aparteko gastuak	0	2.746			
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	1.001.598	0			
AURREZKIA			DESAURREZKIA	-3.464.397	-4.201.077

VI ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako ohar eta konklusio nagusiak jaso ditugu, bai eta Unibertsitatearen kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa zein kudeaketa administratiboa hobetzeko Gangerbera honek emandako gomendioak ere.

VI.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2017ko AURREKONTUA.

Unibertsitatearen 2017rako hasierako aurrekontua Gizarte Kontseiluak onetsi zuen 2016ko abenduaren 23an: diru-sarreretakoa eta gastuetarako 70,45 milioiko kopurua biltzen du. Hasierako aurrekontu horrek honako hauek jasotzen ditu:

- Nafarroako Gobernuak Unibertsitatearen oinarrizko finantzaketarako emandako ekarpena, 55,17 milioikoa.
- Aurreko ekitaldietako atxiki gabeko diruzaintza-gerakina, 1,66 milioikoa.

Aurrekontu-aldaketak

Hasierako kredituek 16,94 milioiko aurrekontu-aldaketa garbiak izan dituzte; hau da, ehuneko 24ko igoera izan da. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

- Gastuetan, nabarmentzekoa da gora egin dutela ondasun arrunten eta zerbitzuen esparrukoek -8,35 milioi, hau da, hasierako kredituaren aldean, ehuneko 72ko igoera- eta langileen arlokoek -5,23 milioi, hau da, ehuneko hamarrekoko igoera-.
- Diru-sarreretan, igoerarik handienak honako hauetan gertatu dira: transferentzia arruntak -7,03 milioi- aktibo finantzarioak -6,50 milioi- eta tasa eta prezio publikoak -2,43 milioi-.
- 2017an onetsitako aurrekontu-aldaketak honako hauek dira (euroak, milakotan):

Aurrekontu-aldaketak-Mota	Kopurua
Kreditu gehikuntza	939
Kredituak sartzea	6.503
Kreditu sorkuntza	9.498
Guztira	16.940

Aurreko taulan, ez dira kreditu-transferentziak sartzen zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Arestian aipatutakoetatik aldaketa gehienak atxikitako kredituak, 2016ko abenduaren 31n gastatu gabeak, txertatzeari dagozkio, bai eta 2017. urteko izaera finalistako diru-sarrerak aitortzeagatik kreditu-zabaltzei eta -sorkuntzei ere, nagusiki ikerketa-kontratu eta -proiektuetarako eta atxikitako beste gastu batzuetarako (mugikortasun-bekak, katedrak eta abar).

Aurrekontuaren likidazioa

Behin betiko kredituak 87,39 milioi eurokoak dira, aurreko paragrafoetan aipatutako aldaketak egin ondoren.

Behin betiko kreditu horietatik, 17,74 milioi atxikiak dira eta gainerakoa, berriz, 69,65 milioi, atxiki gabekoak dira.

Aitortutako betebeharrak 78,20 milioi euro egin dute, eta betetze-maila % 89koa izan da. Nabarmendu behar ditugu langileen arloko gastuen betetze-portzentaje handia -ehuneko 97- eta ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko betetze txikia -ehuneko 69-. 2017an aitortutako betebeharren ehuneko 12 diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuei dagokie: 9,31 milioi dira.

Aitortutako eskubideek 76,99 milioi euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 88 da. Honako hauek dira portzentaje handiena duten kapituluak: tasak eta prezio publikoak, ehuneko 96rekin, eta transferentzia arruntak, ehuneko 98rekin. 2017an aitortutako eskubideen ehuneko 13 diru-sarrera finalistei dagokie: 9,67 milioi dira.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Unibertsitateak 2017an gastatutako 100 euro bakoitza honako helburu hauetarako erabili da, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Diru-kopurua	Finantza iturria	Diru-kopurua
Langileak	73	Tasak, prezio publikoak	19
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	18	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	80
Transferentzien bidezko gastuak	3	Finantza-pasiboak	1
Inbertsio errealak	6		
	100		100

- Gastu politikak. Hurrengo taulan, Unibertsitatearen 2017ko gastu-politikak erakusten ditugu:

(Euroak, milakotan)

Gastu-politika	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Betetakoa	Betetzea (%)
1 Irakaskuntzaren kudeaketa	3.119	4.525	4.257	5
2. Irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena	39.480	40.098	39.662	51
3 Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua	4.598	17.868	10.587	13
4 Atzerri harremanak	660	2.253	1.492	2
5 Gizarte ekintza	497	516	487	1
6 Unibertsitate-hedadura	1.539	1.708	1.678	2
7 Orotariko jarduerak	20.554	20.419	20.037	26
Guztira	70.447	87.387	78.200	100

2017an Unibertsitatearen gastuak honako ardatz nagusi hauek izan ditu: irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena –ehuneko 51–, jarduera orokorrak –ehuneko 26– eta ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatua –ehuneko 13–.

- 2016ko eta 2017ko urteetako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazleen alderaketa:

(Euroak, milakotan)

Adierazleak	2016*	2017	Aldea (%) 2017/16
Hasierako aurrekontua	66.725	70.447	6
Gastua, guztira	75.316	78.200	4
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	68.514	73.376	7
Inbertsio gastuak (1., 2. eta 4. kap.)	68.475	73.345	7
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	4.969	4.807	-3
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	1.832	18	-99
Diru-sarrerak, guztira	73.330	76.988	5
Tasen eta bestelako bidezko diru-sarrerak (3. kap.)	16.145	14.709	-9
Tasen bidezko diru-sarrek gastu arruntetan egiten duten portzentajea	24	20	-
Diru-sarrera arruntak (3. kapitulutik 5.era)	72.694	75.311	4
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	56.388	61.174	8
Transferentzien bidezko diru-sarrek zenbat diru-sarreen guztizkoan egiten duten portzentajea	71	74	-
Finantza eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kap.)	618	971	57
Etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromisoak	5.903	4.856	-18

*Auditatu gabeko ekitaldia

Horiek aztertuta, ondokoak adierazi behar ditugu:

- 2017ko hasierako aurrekontua aurreko ekitaldikoa baino ehuneko sei handiagoa da.
- 2017ko guztizko gastuak ehuneko lau handitu dira, funtsean langile-gastuek 3,84 milioi eta guztizko diru-sarrerek ehuneko bost egin dutelako gora, transferentzia arruntak 4,1 milioi igotzearen ondorioz.
- Finantza-eragiketen arloko gastuak ehuneko 99 gutxitu dira, 1,83 milioikoak izatetik 18.000 eurokoak izatera. Jaitsiera horren arrazoia da 2016an bi mailegu –guztira, 1,56 milioi– aurrez amortizatu zirela.
- Diru-sarrera arruntak ehuneko lau igo dira 2016koekin alderatuta.
- Tasen bidezko diru-sarrerak ehuneko bederatzi jaitsi dira, eta gastu arrunten ehuneko 20 finantzatzan dute. Halaber, finantzaketa-iturri hori Unibertsitatearen diru-sarrera guztien ehuneko 19 da.
- Transferentzien bidezko diru-sarrerek –61,17 milioi– diru-sarrera guztien ehuneko 79 egiten dute. Transferentzien bidezko diru-sarrera horien barruan, nabarmentzen dira Nafarroako Gobernuarekiko finantza-hitzarmenetik datozenak, 55,17 milioi euro egiten dutenak.

VI.2. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA 2017ko ABENDUAREN 31n

Hurrengo taulan, Unibertsitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioarekin lotutako adierazleen multzo baten bilakaera erakusten dugu, 2016. eta 2017. urteetan:

Adierazleak	(Euroak, milakotan)		
	2016*	2017	Aldea (%) 2017/16
Aurrekontu-emaiza doitua	56	411	634
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-772	-2.165	-180
Aurrezki gordina	4.219	1.966	-53
Finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak)	1.870	43	-98
Aurrezki garbia	2.349	1.924	-18
Diruzaintza-gerakina, guztira	12.454	10.863	-13
Atxikitako diruzaintza-gerakina	6.503	6.458	-1
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina edo gastu orokorretarakoa	5.951	4.405	-26
Funts berekiak	136.820	132.536	-3
Zorpetze finantzarioa (epe luze eta laburrean)	2.304	3.263	42
Zorrak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa	3	4	
Diruzaintza	7.461	7.717	3
Aldi baterako inbertsio finantzarioak	8.500	7.000	-18

*Auditatu gabeko ekitaldia

- Aurrekontu-emaiza doitua ehuneko 634 handitu da, 0,41 milioi, aztertutako aldian.
- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioak okerrera egin du 2017an, zeren eta defizita 2016an 0,78 milioikoa izatetik 2017an 2,17 milioikoa izatera iritsi baita; alde horren arrazoia da gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioen igoeraren ehunekoa desberdina izan dela: ehuneko 6,4koa gastuetan eta ehuneko 4,5koa, berriz, diru-sarreretan.
- Aurrezki gordina⁶ eta aurrezki garbia⁷ ehuneko 53 eta 18 jaitsi dira 2016koekin alderatuta, eta horren arrazoia da 2017. urtean gastu arruntak handitu direla eta, maileguak aurrez amortizatzearen ondorioz –1,6 milioi amortizatu dira–, pasibo finantzarioak ere handitu direla.

⁶ Aurrezki gordina: diru-sarrera arruntak (1. kap 5. kapitulura) ken funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)

⁷ Aurrezki garbia: aurrezki gordina ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak).

- Guztizko diruzaintza-gerakina ehuneko 13 jaitsi da –hau da, 1,59 milioi–, eta 2017an 10,86 milioikoa izatera iritsi da; atxiki gabekoak edo gastu orokorretarakoak ehuneko 26ko jaitsiera du; horrek 1,55 milioiko jaitsiera adierazten du.

- Diruzaintza-gerakin atxikia, 6,46 milioikoa, funtsean ikerketa-proiektuetako gastuak finantzazera bideratzen da. Gerakin horren guztizko zenbatekoa 2018ko aurrekontuari txertatu zaio.

Hurrengo taulan erakusten dugu diruzaintza-gerakinak nolako bilakaera izan duen 2013tik:

(Euroak, milakotan)					
Diruzaintzako gerakina	2013	2014	2015	2016	2017
Gerakina, guztira	11.631	13.116	14.163	12.454	10.863
Atxikitako gerakina	7.709	6.835	6.471	6.503	6.458
Atxiki gabeko gerakina edo gastu orokorretarakoa	3.922	6.281	7.692	5.951	4.405
Hurrengo urteko aurrekontuaren finantzaketa	-	608	948	1.662	1.847
Diruzaintza-gerakin likidoa	3.922	5.673	6.744	4.289	2.558

Nafarroako Gobernuak 2017rako aurrekontu-egonkortasunaren helburua banatu egin du, eta horrek bideratu du Unibertsitateak 2016ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, 1,66 milioikoa, erabili ahal izatea bere hasierako aurrekontuko finantza-iturri gisa.

Unibertsitatearen finantza-zama 2017an –eta, oro har, aurreko urteetan– garrantzi eskasekoa da: 42.717 euro 2017an. Hala eta guztiz ere, jaitsiera garrantzitsua du 2016koaren aldean, bereziki urte horretako amortizazio aurreratuari –aurreko paragrafoan aipatutakoari – esker.

- 2017an, zorpetze finantzarioak ehuneko 42 egin du gora, eta 3,26 milioikoa izatera iritsi da. Zenbateko horrek entitatearen diru-sarrera arrunten ehuneko lau eskas egiten du. Hurrengo xehetasunetan ikus daitekeen bezala, zorpetzea ikerketa-proiektuak finantzatzeko mailegu eta aurrerakin itzulgarrietatik dator:

(Euroak, milakotan)			
Maileguak (euroak, milakotan)	Epe luzera	Epe laburra	Zorpetzea, guztira
FEDER, ikerketa-proiektuetarako maileguak	132	12	144
FEDER, aurrerakin itzulgarriak, ikerketa proiektuak	3.120	-	3.120
Zorren guztizkoa, 2017ko abenduaren 31n	3.252	12	3.264

- 2017ko diruzaintza-saldoak ehuneko hiru egin du gora 2016koarekin alderatuta, eta aldi baterako finantza-inbertsioak –epe laburreko ezarpenak– ehuneko 18 jaitsi dira, 1,5 milioi.

Azken batez, 2017ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioaren azterketatik, ondorioztatzen dugu Unibertsitateak egoera ekonomiko saneatua duela. Nabarmendu behar dugu honako hauek dituela: 4,41 milioi euroko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina; 3,26 milioi euroko zorpetzea, eta 7,72 milioi euroko diruzaintzako saldoa. Hala eta guztiz ere, adierazle batzuek –esate baterako, aurrekontu-emaizta ez-finantzarioak eta aurrezki gordin eta garbiak– okerrera egin dute 2016koekin alderatuta.

VI.3. KONTUEN GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Ganbera honek 2014ko kontuei buruz eginiko txostenari dagokionez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak 2018-2020 urteetarako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sinatu dute.*

- *Nafarroako Gobernuak 2017rako aurrekontu-egonkortasunaren helburua banatu izanak aukera eman du Unibertsitateak, bere hasierako aurrekontuko finantza-iturri gisa, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren zati bat erabili ahal dezan. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak Unibertsitatearako berariaz arautu behar du azken horren aurrekontuak egitean –likidazioa eta kontu orokorrak prestatzeari begira– zein diren aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen aplikaziotik heldu diren betebeharrak.*

- *Unibertsitatean kontabilitate analitikoa ezartzeko prozesua pertsonalizatzeko fasea amaitu da. Aurreikusita dago haren mekanizazio-fasea 2020-2021 urteetan amaitzea.*

- *Ikerketa-proiektu eta -kontratueterako aldi baterako langileak kontratatuzeko prozesuetan aplikatzekoak diren hautapen-irizpideak zehaztu dira, haiek homogeneizatzeko aldera.*

- *Unibertsitateko langileei egindako ordainketak, zerbitzu-arrazoiarengatiko kalte-ordainak izan ezik, nomina bidez egiten dira, kontabilitate-egozpena aurrekontuko zein kapituluri egiten zaion alde batera utzita.*

- *2017an langile ikertzaileak kontratatuzeko erregelamenduan arautu da aukera egon dadila ikerketa-proiektuetako helburuak betetzearen arabera ordainsariak ezartzeko.*

- *Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzeta-prozedura bat ezarri da, familia ugariarengatiko eta ohorezko matrikulengatiko salbuespenak egiaztatuzeko.*

Aurreko txostenetan jasotakoetatik, ondokoek jarraitzen dute indarrean:

- *Unibertsitateko 2010eko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezarri behar du, bere aurrekontu- eta finantza-jarduera erregistratzeko eta haren jarraipena egiteko; halaber, urteko oroitidazkiaren egitura eta edukia hartan ezarritakoetara egokitu behar ditu.*

- *Nafarroako Gobernuarekin eta Gizarte Kontseiluarekin batera, eta LOUren 69. artikuluan adierazitakoarekin bat, aztertzea aukerarik ba ote dagoen ILLen ordainsarien egungo tarte autonomikoaren zehaztapenean kontzeptu osagarriak sartzeko.*

- *Langileen kontratazioan honako portzentaje hauek betetzea, LOUren araudiari eta ILLen plantillaren jarraibideen arabera: lanaldi osoko langileekin parekatuz kontratatutako ILLak, ehuneko 49tik behera; aldi baterako lan-kontratua duten ILLak, ehuneko 40tik behera; eta ILL doktooreen portzentajea, ILL guztien ehuneko 70etik gora.*

- *Behin kontabilitate analitikoa ezarrita, ikerketa-jarduerarekin sortzen diren zeharkako kostuak finkatzea.*

VI.4. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

VI.4.1. Langile-gastuak

LOUren 81.4 artikulua ezarri bezala, Nafarroako Gobernuak, 2016ko abenduaren 21ean – Unibertsitatearen aurrekontua onetsi baino lehen–, langile-gastuen kostua baimendu zuen, guztira 54,06 milioi euro egiten duena.

Unibertsitatearen 2017rako aurrekontuak bere langileei –irakasle eta ikertzaile diren langileei (IIL) eta administrazio eta zerbitzuetako langileei (AZL)– buruzko informazio xehakatu dauka, kopuruari, kategoriari eta kostuei dagokienez, eta horrekin batera, bi langile mota horien lanpostuen zerrenda jasotzen du. Hala eta guztiz ere, eranskin bat falta du, non proposatutako diren sarrera berriko lanpostuak ageriko bailirateke; izan ere, aurreko 81.4 artikulua eranskin hori behar dela ezartzen du.

2017an, langile-gastuak 57,54 milioi eurokoak izan dira; Unibertsitatearen guztizko gastuaren ehuneko 74, hain zuzen. Ehuneko 52,4 IILen ordainsariei dagokie; ehuneko 25,5, administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZL) ordainsariei, eta ehuneko 7,8, langile ikertzaileei (LI). Honako hau da gastu-kontzeptuaren araberrako banaketa:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak 2016*	Aitortutako betebeharrak 2017	2017/2016 aldea (%)
IILen lansariak	28.686	30.150	5
AZLen lansariak	13.908	14.658	5
IELen lansariak	3.742	4.498	20
Beste hainbat ordainsari	63	265	321
Gizarte-zamak	7.175	7.849	9
Prestakuntza	126	124	-2
Langile-gastuak, guztira	53.700	57.544	7

*Auditatu gabeko ekitaldia

2016. ekitaldiarekin alderatuz gero, langile-gastuak ehuneko zazpi hazi dira. “Beste hainbat ordainsari” kontzeptuaren igoera –ehuneko 321– zor zaio kapitulu horri egozteari Fundazioaren jardueretan parte hartzen duten Unibertsitateko langileen gastuak (irakaskuntza propioak eta hizkuntzetako ikastaroak), zeinak 2016ko hirugarren hiruhilekora arte bigarren kapituluari egozten baitzizkion.

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)

2017ko abenduaren 15eko Gobernu Kontseiluaren erabakiz, Unibertsitateko IILen lanpostuen zerrenda onetsi zen.

1.011 lanpostu dira. Honako hau da langile-kategorien arabera sailkapena:

Kategoria	2016	2017
Funtzionarioak	379	379
Unibertsitateko katedraduna	95	94
Unibertsitateko titularra	261	263
Unibertsitate eskolako katedraduna	5	5
Unibertsitate eskolako titularra	17	16
Zerbitzu eginkizunetan dagoen irakaslea	1	1
Kontratudunak	617	628
Kontratatutako doktorea	131	141
Doktore laguntzailea	70	71
Laguntzailea, LOUren arabera	2	-
1. motako irakasle elkartua	36	37
2. motako irakasle elkartua	276	275
3. motako irakasle elkartua	87	88
Ordezko irakaslea	15	16
Ikertzaileak	4	4
IIL guztira	1000	1011

2017ko abenduaren 31n, IILen lanpostuak 1.011 ziren; horietatik, 163 lanpostu hutsik zeuden, eta horietatik bederatzitan lanpostu-erreserba zegoen.

Lanpostu huts guztietatik, 71 lanpostu beteta zeuden; betetako lanpostuetatik, 52 kontratupeko irakasle doktoreak ziren, behin-behineko lan-araubidean; izan ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubidea ezartzen duen apirilaren 20ko 36/2009 Foru Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 21eko 2/2015 Foru Dekretuaren bitartez, lan-araubideko behin-behineko kontratupeko irakasle doktorearen figura jaso zen. Kategoria hori sortu da aipatutako 36/2009 Foru Dekretuan legez aurreikusitako behin betiko estaldura prozedura aplikatzerik ez dagoen bitarteko.

Hau da, IILen lanpostuen portzentajea, IILen lanpostu guztien gainekoa, ehuneko 16koa da eta betetako lanpostuen portzentajea, berriz, ehuneko 51koa da.

2017rako lan-eskaintza publikoan, 2017ko azaroaren 13ko NAOen argitaratutakoan, IILen honako lanpostu hauek jaso ziren:

IIL lanpostua	Zenbat
Berrezarpen-tasa	
Unibertsitateko katedraduna (barne sustapena)	9
Unibertsitateko titularra	9
Irakasle kontratatua, doktorea	1
Egonkortze-tasa	
Unibertsitateko titularra	8
Irakasle kontratatua, doktorea	10
Guztira	37

2018an zehar, deialdiak egin dira Unibertsitateko titularraren bederatzi lanpostu (berrezarpen-tasa) eta kontratupeko irakasle doktoreen 11 lanpostu (berrezarpen- eta egonkortze-tasa) betetzeko; azken horiek une honetan izapidetzen ari dira. 2019ko lehen hiruhilekoan, aurreikusita dago gainerako lanpostuetarako deialdia egitea.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)

Administrazio eta zerbitzuetako langileetatik izendapen askeko zuzendaritza-karguak Unibertsitatean betetzen dituzten langile finko eta behin-behinekoen plantilla organikoa eta zerrenda, 2017ko abenduaren 31ri dagokiona, Unibertsitateko errektorearen urtarrilaren 30eko 152/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren, eta 2018ko otsailaren 19ko NAO on argitaratu ziren.

Onetsitako plantillako lanpostuak 530 dira. Honako hau da haien sailkapena, araubide juridikoaren arabera:

Araubide juridikoa	2016	2017
Funtzionarioak	510	511
Izendapen askeko zuzendaritza-kargua, behin behinekoa	4	5
Kabineteko behin-behineko langileak	14	14
Guztira	528	530

Langileen zerrenda horretan, graduari buruzko informaziorik ez dago. Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren 20. artikulua dioena urratzen du horrek.

2017ko abenduaren 31n, 530 ziren AZLen lanpostuak. Hona hemen betetakoen eta hutsen sailkapena eta lanpostuen guztizkoan zenbat egiten duten:

Lanpostuak	2017
Lanpostuak, guztira	530
Hutsak	163
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	31
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	124
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	76

2017an, AZLen lanpostu guztien ehuneko 31 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 76 aldi baterako beteta zeuden.

2017ko abenduaren 11ko NAO on argitaratutako lan-eskaintza publikoan, AZLen honako lanpostu hauek jaso ziren, 2017rako berrezarpen-tasa zela eta.

AZL lanpostua	Maila	Lanpostuak, guztira
Oinarrizko postuko teknikaria (Informatika Zerbitzua)	A	1
Oinarrizko postuko teknikaria (Ikerketa)	A	2
Guztira		3

Txosten hau egin den egunean, ez dira aurreko AZL lanpostuetarako deialdirik egin. Atzerapen horren arrazoa izan da, nagusiki, Unibertsitateko lanpostuetara sartzeko eta haien betetzeko erregelamenduak aldatu behar izan direla araudi hori Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren arabera egokitzeko, hain zuzen ere Unibertsitate sartzeko oposizio-sistema lehentasunezko zat jotzeari begira.

Langile ikertzaileak

IILez eta AZLez gainera, 2017ko abenduaren 31n, Unibertsitatean zerbitzuak ematen dituzte ikerketa-jarduerekin lotutako hainbat pertsonen: prestakuntzan ari diren ikertzaileak, langile ikerketaileak eta laguntzako teknikariak dira, beren kargura ikerketa-proiektuak dituztenak, LOUren 83. artikulua araberako kontratuekin nahiz lankidetzak-hitzarmenekin. Guztira, 241 pertsona dira.

2017ko abenduaren 31n egiazki dauden langileak

Hala, 2017ko abenduaren 31n, 1.615 pertsona ari ziren lanean Unibertsitatean, honela banatuta:

Unibertsitateko langileak 2017-12-31n	Funtzionarioak	Kontratudunak	Guztira
Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	335	570	905
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)	326	143	469
Langile ikertzaileak (LI)	-	241	241
Langileak, guztira	661	954	1.615

Langileen ehuneko 56 IILak dira; ehuneko 29, AZLak, eta gainerakoak, ehuneko 15a, LIak.

Halaber, kontratupeko AZLak AZL langileen guztizkoaren ehuneko 44 dira.

2016. urtearekin alderatuta, Unibertsitateko egiazko langileen kopuruan 73 gehiago daude: 16 IIL, 13 AZL eta 44 LI.

Txosten honekin batera doan eranskinean, Unibertsitateko egiazko langileen bilakaera jaso dugu, abenduaren 31koa.

Lagina

Unibertsitatearen langile-arloko gastuen lagin bat aztertu dugu, eta egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, espedienteak osoak direla, gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanpostuetarako ezarritakoak direla eta egindako atxikimenak zuzenak direla. Hala eta guztiz ere, honako hau aipatu behar dugu:

- AZLen espediente batzuetan, ez dago jasota antzinatearen, emandako zerbitzuen edo banakako merezimenduen berriazko aitorpena.

- OTRI kontratuengatik (txosten honen VI.5.6 atala) ikertzaileei ordaindutako lansariak nominan jasotzen dira. Ordainketa horiek hilerok justifikatzen dira, ikerketa-zerbitzuarengatik egindako zerrenda batez. Ezagutzaren Transferentziarako Ataleko buruak sinatzen du zerrenda hori.

Kontratu batzuen aurrekontuetan, ez dira jasota ageri ikertzaileek jaso beharreko lansariak; beste batzuetan, ordea, ordaindutako zenbatekoak haietan aipatutakoak baino handiagoak izan dira; inoiz ere ez da gertatzen ikertzaile bakoitzari lansariengatik ordaindutako zenbatekoak ezarritako gehienekoa –goieneko irakaskuntza-kategoria akademikoaren urteko ordainsariaren 1,5 halarako, Unibertsitatearen ikerketarako erregelamenduan ezarritakoaren arabera– gaitu izana. 2017an, zenbateko hori 136.692 eurokoa da.

Gomendatzen dugu langileei buruzko espedienteak osatzea, haiekiko emandako administrazio egintzak jaso ditzaten.

VI.4.2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2017ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatiko gastu arruntak 13,75 milioi eurokoak izan ziren, eta Unibertsitatearen gastu guztien ehuneko 18 egiten dute. 2017ko betetze-maila ehuneko 69koa izan zen, eta ekitaldiaren itxieran gastu horien ehuneko 86 zeuden ordainduta.

Honako hau da artikuluko ekonomikoen arabera gastua eta haren eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

(Euroak, milakotan)			
Artikulua	Aitortutako betebeharrak, 2016*	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Errentamenduak	51	68	33
Konponketa eta kontserbazioa	2.218	2.245	1
Materiala, hornidurak eta beste	9.380	10.137	8
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordaina	508	501	-1
Argitalpenen edizioa eta banaketa	44	34	-23
Unibertsitateekiko akordioak, nazioarteko programak eta beste	910	769	-15
Guztira	13.111	13.754	5

*Auditatu gabeko ekitaldia

2016ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bost handitu dira, eta haien betetzean beheranzko joera aldatu da 2009tik.

Materialarengatik, hornidurengatik eta beste batzuegatik egindako gastuek, 10,14 milioi eurokoek, kapituluaren ehuneko 74 egiten dute, eta ehuneko zortzi igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kontzeptu ekonomikoaren arabera, nabarmentzekoak dira beste enpresa batzuek egindako lanetatik datozen gastuak (garbiketako kontratuak, segurtasuna...), 4,46 milioi egiten baitute; horniduren arlokoak, 2,19 milioioak; eta ikerketa-proiektuekin eta -kontratuekin lotutakoak, 2,14 milioioak; izan ere, kapituluko guztizko gastuaren ehuneko 64 dira.

Unibertsitateekiko akordioengatiko gastu arruntak eta nazioarteko programetakoak ehuneko 15 jaitsi dira; beherakada hori zor zaio, nagusiki, Fundazioaren jardueretan parte hartzen duten Unibertsitateko barneko langileen gastuak langile-gastuen kapituluko "beste ordainsari batzuk" kontzeptuaren pean kontabilizatu izanari.

Kontratazio-espediten lagin baten berrikuspena

2017an izapidetutako honako kontratazio-espeditentak fiskalizatu ditugu:

Kontratua	Mota	Prozedura	Adjudikatzeko irizpidea	Zenbat lizitatuak	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Argindarraren hornidurarako esparru-akordioa	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea Eginda	Eskaintzarik onena	12	1.146.643*	*
Gas naturalaren hornidurarako esparru-akordioa	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	Eskaintzarik onena	6	537.878**	**
Zaintza eta Segurtasuna	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	Eskaintzarik onena	1	640.800	0,11
Zerbitzu osagarriak	Laguntza	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	Eskaintzarik onena	1	66.000	2,22
Kafetegi eta jantokietako zerbitzua***	Zerbitzuen emakida	Irekia, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	Eskaintzarik onena	0	-	-

* Kontratuaren lehenengo urterako adjudikatutako zenbatekoa. Kasu horretan, kontratua dela-eta kalkulatu den zenbatekoa 4,36 milioi eurokoa da, baina zenbait kontratu egitea ekarriko duen esparru-akordio bat denez, berez ez dago adjudikazio-zenbatekorik.

** Kontratuaren lehenengo urterako adjudikatutako zenbatekoa. Kasu horretan, kontratua dela-eta kalkulatu den zenbatekoa 2,2 milioi eurokoa da, baina zenbait kontratu egitea ekarriko duen esparru-akordio bat denez, berez ez dago adjudikazio-zenbatekorik.

*** Adjudikazioa eman gabe geratu da

Aipatutako kontratazio-espeditentak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzea den araudiaren arabera izapidetu zirela.

Gastuen lagin baten berrikuspena

Garbiketa-zerbitzua dela-eta 2017ko urteari dagozkion gastuak berrikusi ditugu: 1,82 milioi euro egiten dute. Gastu horiek baimenduta, kontu-hartzaitzak onartuta, justifikatuta, zuzen kontabilizata eta epean ordainduta daude.

VI.4.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Transferentzia arruntak 2,05 milioikoak dira, ehuneko 73ko betetze-mailarekin, eta ehuneko 23 handitu dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera horren arrazoia, nagusiki, beketan eta ikasleentzako laguntzetan izandako igoera izan da, eta, zehazkiago, Erasmus mugikortasun-programetako laguntzetan.

Honako hauek dira kapitulu honetako gastua eta 2016ko urtean izandakoarekiko alderaketa:

(Euroak, milakotan)			
Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2016*	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Ikasleentzako beka eta laguntzak	965	1.211	25
IIL eta ALZentzako beka eta laguntzak	155	199	28
Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentziak	533	625	17
Elkarteentzako eta bestelako ordezkarietarako laguntzak	11	12	9
Guztira	1.664	2.047	23

*Auditatu gabeko ekitaldia

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzien barruan, Unibertsitatea-Gizartea Fundazioari egindakoa ageri da, 0,43 milioikoa. Kopuru hori, emandako mandatuaren barruan, Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiaren jardueretara, Alumni Programara eta I+G Zentrora bideratzen da.

2017an baimendutako transferentzia arruntetatik berrikusi dugun lagina honako hau da:

Kontzeptua	Gastua, 2016*	Gastua, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Ikasleentzako beka eta laguntzak, matrikula dela eta	55.553	39.107	-30
Katedra-bekak	47.222	59.685	26
Atzerriko ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak	124.530	130.518	5

*Auditatu gabeko ekitaldia

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak baimenduta, kontu-hartzailtzak onartuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta haien ordainketa haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera egin dela.

VI.4.4. Inbertsioak

2017ko inbertsioak 4,81 milioi eurokoak izan dira –aitortutako betebeharrak guztien ehuneko sei–, eta betetze-maila ehuneko 93koa izan da.

Honako hau da kontzeptu ekonomikoen arabera gastua eta haren eta 2016ko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Kontzeptua	(Euroak, milakotan)		
	Aitortutako betebeharrak, 2016*	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	559	425	-24
Makineria, instalazioak eta tresneria	1.075	829	-23
Altzariak eta tresneria	112	205	83
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	711	885	25
Funts bibliografikoak	1.661	1.686	2
Ikerketa-proiektuetan eta -kontratuetan egindako inbertsioak	650	404	-38
Patenteak	29	14	-52
Ondare ez-materiala	0	65	-
Aplikazio informatikoak	172	294	71
Guztira	4.969	4.807	-3

*Auditatu gabeko ekitaldia

Inbertsio nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkie: ehuneko 35 funts bibliografikoei, ehuneko 25 informazio-prozesuetarako eta aplikazio informatikoei, eta ehuneko 17a, berriz, makineriari, instalazioei eta tresneriari.

Kontratazio-espeditenteen lagin baten berrikuspena

2017ko espeditenteen honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontratua	Mota	Prozedura	Adjudikatze irizpidea	Lizitatuak kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Aldizkarietako harpidetza	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	Esklusibotasuna		1.634.255	0
Mathematica lizentzia	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	Esklusibotasuna		73.548	0
Bistetarako aretoko ekipamendua	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	Prezioa		20.457	4,8
Ordenagailuen hornidura*	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda		*		*
2017ko otsaila-uztaila seihilekoa						
1. sorta			Eskaintzarik onena	4	887/889**	
2. sorta				3	889/889**	
2017ko abuztua-2018ko urtarrila seihilekoa						
1. sorta			Eskaintzarik onena	3	890/898**	
2. sorta				2	940/930**	

*Kontratu hori dator 2016an egindako alde aurretiko esparru-akordio batetik.

**Sorta bakoitzeko bi adjudikazio-emaile. Aipatutako zenbatekoak aleko prezioak dira.

Aipatutako kontratazio-espeditentak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzen den araudiaren arabera izapidetu zirela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabil daiteke operatzaile ekonomiko baten eskubide esklusiboak babestu behar direnean, baina soilik aplikatuko da arrazoizko beste hautabide edo ordezkorik ez dagoenean. Matemática lizentzia erabiltzeko emakida-kontratuaren kasuan, enpresa adjudikatzailea lizentzia hori banatzeko eta baimentzeko baimenduta dagoen bakarra den arren, ez dago behar bezala justifikatuta aplikazio horren erabileraren beharra eta hartarako arrazoizko beste hautabiderik edo ordezkorik ez egotea.

Gomendatzen dugu, operatzaile ekonomiko bakarrak eman ditzakeen zerbitzuen kasuan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidezko kontratazio-espeditentak egiten direnean, behar adina justifikatzea arrazoizko beste hautabide edo ordezkorik ez dagoela.

2017an, Unibertsitateak 58 obra-kontratu adjudikatu ditu, 30.000 eurotik beherako kopuruan. Kontratu horien honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontratua	Eskatutako eskaintzak	Aurkeztutako eskaintzak	Kontratutako zenbatekoa	Amaierako zenbatekoa	Aldea (%)
Iturgintza-lanak	7	3	29.812	32.760	9,9
Lurpeko galeriako hormigoian konponketa-lanak egitea	3	3	28.901	28.901	0
Ikasgelategiko klimatizatzaileetan aldagai-luak instalatzea	1	1	12.205	12.205	0
Osasun Ikasketen Eskolan kanpoko hesiak ordezte	4	2	11.236	11.236	0
Soforen eraikineko lehenengo solairuko linoleozko zoladuran erreforma egitea	1	1	8.552	9.652	12,9

Aurreko espeditentak aztertuta, konklusioa da ezen, oro har, aplikatzen den araudiaren arabera izapidetu zirela, eta jasota gelditu direla aurreko kreditu-erreserba, kasua bada prezioa igotzen duten aldaketen justifikazioa eta onspena eta kasuko faktura.

VI.4.6. Ikerketa-proiektuen eta -kontratuaren kudeaketa

Unibertsitatean Europako, Estatuko eta Nafarroako Gobernuak finantzaketa duten ikerketa-proiektuak egiten dira. Gainera, Unibertsitateak pertsona edo entitateekin kontratuak egin ditzake lan zientifiko, tekniko edo artistikoak egiteko, edo prestakuntzarako berariazko jarduerak egiteko, LOUren 83. artikularen Unibertsitateko Estatutuen 183 artikularen babesean (OTRI kontratuak).

2017an, ikerketa-proiektu eta -kontratuak egitetik heldu diren gastuak 6,46 milioi eurokoak izan dira, honako xehetasun hauen arabera:

Ikerketa-proiektu eta -kontratuak	(Euroak, milakotan)	
	Diru-kopurua	%
Langile-gastuak	3.968	61
Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	1.976	31
Transferentzia arruntak	130	2
Inbertsio errealak	387	6
Gastuak, guztira	6.461	100

Ikerketa-proiektu eta -kontratuak honako lagin hau berrikusi dugu:

Ikerketa proiektuak	2016	2017	2018	Zeharkako kostuak ⁽²⁾	(Euroak, milakotan)	
					Gastuak, guztira	Laguntzaren zenbatekoa
Estatuko finantzaketa duen ikerketa-proiektua	98.538	64.908	24.161	41.160 ⁽¹⁾	228.767 ⁽¹⁾	237.160
Europako finantzaketa duen ikerketa-proiektua	56.294	78.346	19.796	15.600	170.036	170.122
Nafarroako Gobernuaren finantzaketa duen ikerketa-proiektua		147.406	5.975	12.390	165.771	165.771
Ikerketa-kontratuak	2016	2017	2018		Guztira	Diru-sarrerak
OTRI kontratua	8.600	94.432	12.291	18.182	133.505	139.860

⁽¹⁾ Amaitu gabeko proiektua

⁽²⁾ Unibertsitateak jasandako zeharkako kostuak ordaintzera bideratutako diru-sarrerak

Eginiko lana dela eta, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Ikusten da, oro har, arlo konplexu honetan –bai denbora-hedaduraren berarengatik, bai administrazio-, finantza-, egiaztapen- eta jarraipen-betekizunengatik ere–, kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa egokia egin dela. Horri dagokionez, honako hauek aipatu nahi ditugu:

- Unibertsitateak ikerketa-proiektuetarako aurrerakinak ematen ditu, eta horien bidez proiektu horien kudeaketa errazten du, ente finantza-emaileen kasuko diru-sarrerak egiazki jasotzen ez diren bitartean, betiere diru-sarrera horiek behar bezala kreditatuta badaude. Ekitaldiaren itxieran, ikerketarako aurrerakinengatik aitortutako eskubideak, ekitaldian betearazi ez direnak, deuseztatzen dira. Aurrerakin horietatik gainerakoak kobratzeko dauden aitortutako eskubide moduan ageri dira; beraz, kontuak ixteko garaian kobratzen zailtzat jotzen dira, eta kasuko hornidura egiten da.

- Bestetik, Unibertsitateak ikerketa-kontratu eta -proiektuak finantzatzeko jasotako diru-sarreraren edo laguntzen portzentaje bat jasotzen du, haiek aurrera eramateko jasandako zeharkako kostuak ordaintze aldera.

Egiaztatu dugu aztertutako proiektu eta kontratuei esleitutako zeharkako kostuen portzentajeak egoki aplikatu eta kobratu direla.

- Kontratu eta proiektuak betearazteko gastuen –haien jarduerekin lotutakoan– izapidetzea Unibertsitatean ezarritako aurrekontu-betearazpeneko arauen arabera egin behar da.

Egiaztatu dugu ezen organo eskudunak onesten dituela ikerketa-kontratu eta -proiektuetako gastu arruntak eta inbertsio-gastuak; halaber, kontrataziorako prozedura egokia aplikatzen da, kasua bada.

- Kontratu eta proiektuetan inplikaturako langileen ordainsarien ordainketa nomina-zerbitzuak egiten du.

- OTRI kontratuengatik ikertzaileek lansarien kontzeptuan jasotako kopuruak hileroko justifikatzen dira ikerketa-zerbitzuak egindako zerrenda baten bitartez; zerrenda hori Ezagutzaren Transferentziarako Ataleko buruak sinatzen du, lansariak eskatzeko proiektuaren arduradunak sinatutako formularioen arabera. Ikerketa zerbitzuak egiaztatzen du kontratuei dagozkien diru-sarrerak jaso direla eta aurrekontuan dirurik badagoela, eta zerrenda nominen atalari igortzen dio, ordainketa egin dezan.

Oro har, lansariengatik gastua da kontratuak betearaztearen zenbatekorik handiena duen kontzeptua. Ikertzaile nagusiak, proiektuko arduradun gisa, lansariak ordaintzeko eskaerak sinatzen ditu, haren zenbatekoa eta jasotzaileak zein diren ere, eta batzuetan aurrekontuaren betearazpen-oinarrietan gastu-unitate funtzional baten arduradunaren eskumen gisa ezarritako muga gainditzen da.

- Aztertutako OTRI kontratuaren diru-sarrerak 139.860 eurokoak dira eta gastuak, berriz, 115.323 eurokoak; gastu horiei proiektuari esleitutako zeharkako kostuen zenbatekoa, 18.182

euro, gehituz gero, Unibertsitateak jasotzen duena, proiektuaren amaierako gerakina 6.356 eurokoa izanen da, eta hori ikertzaile nagusiaren gerakinen poltsan sartzen da.

Kontratu honetan, aipatu beharra daukagu ezen, aurrekontua gastuen aurreikuspenarako eta proiektuaren finantzaketa kontrolatzeko barne-erreferentzia baten gisara hartzen bada ere, alde handiak daudela aurrekontuetan jasotako gastu-kontzeptuen eta gauzatutako artean; hori, nagusiki, ikertzaile nagusiaren lansarien kontzeptuetan, ehuneko 188 gehiago, eta material suntsikorrean, ehuneko 95 gutxiago, gertatzen da.

Azaldutakoa eta ikerketa-proiektuen laginari buruz egindako azterketa direla eta, honako gomendio hauek eman behar ditugu:

- *Kudeaketa-prozesu bat ezartzea, ikerketa-kontratuaren jarraipen egokia eta haiek aurrekontuetan aurreikusitakoaren arabera betearaztea bermatuko dituena.*

- *Gastuak baimentzeko eskumena egoki erregulatzea, lansarien zenbatekoek gastu-unitate funtzional baterako aurrekontuaren betearazpen-oinarrietan finkatutako kopurua gainditzen dutenean.*

VI.4.7. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 14,7 milioi eurokoak izan dira 2017. urtean, eta diru-bilketaren portzentajea ehuneko 96 izan zen. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko 19 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(Euroak, milakotan)			
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubideak 2016*	Aitortutako eskubideak 2017	Aldea (%) 2017/2016
Tasak	1.163	1.112	-4
Salneurri publikoak.	12.391	11.195	-10
Bestelako diru-sarrerak Zerbitzuak ematea	2.350	2.212	-6
Ondasunak saltzea	14	15	7
Itzulketak	20	16	-20
Bestelako diru-sarrerak	207	159	-23
Guztira	16.145	14.709	-9

*Auditatu gabeko ekitaldia

Aurreko urtearekin alderatuta, diru-sarrera horiek ehuneko bederatzia egin dute behera.

2017ko prezio publikoak 1,12 milioikoak izan dira, eta kapituluko diru-sarrera guztien ehuneko 76 egiten dute; hona hemen xehetasunak:

(Euroak, milakotan)	
Prezio publikoak 2017an	Diru-kopurua
Matrikula eskubideak Titulazio ofizialak	9.709
Matrikula eskubideak Arautu gabeko irakaskuntzak	1.083
Kirol jarduerak direla eta	176
Lokal eta instalazioen erabilpena	160
Beste prezio publiko batzuk	67
Prezio publikoak, guztira	11.195

Titulazio ofizialen barruan, ziklo, gradu, doktoretza eta master ikasketen matrikulak jasotzen dira; arautu gabeko irakaskuntzetan, berriz, funtsean titulu berekietako, esperientziaren gelako eta hizkuntzen goi-mailako ikastegiko eskubideak sartzen dira.

Prezio publikoek ehuneko 10 egin dute behera 2016koekiko; jaitsiera horren arrazoia da, nagusiki, Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainean onetsitako irizpide-aldaketa; horren arabera, izan ere, sei hileko matrikulak zituzten graduak urteko matrikula izatera pasa dira. Hori dela eta, 2016ko

otsailean, 2015/2016 ikasturteko bigarren seihilekoaren matrikula erregistratu zen, eta 2016ko irailan, berriz, 2016/2017 ikasturteko matrikula osoa. 2017ko irailan, 2017/2018 ikasturteko matrikula osoa erregistratu zen.

Tasa eta prezio publikoei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Unibertsitateak aplikatzen dituen prezio publikoen urteko kopurua honela finkatzen da:

a) Ikasketa ofizialen kasuan, Nafarroako Gobernuak ezartzen ditu. 2017/2018 ikasturterako, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko uztaileko ebazpenaz, aurreko ikasturterako gainditutako ehuneko 2,3 gaurkotu zen. Halaber, ebazpen horretan, erregulatutako lanbideetarako gaikuntza ematen duten unibertsitate-masterretarako lehen matrikulako kredituen prezioa beheratu zen, kostuaren ehuneko 25etik ehuneko 20ra, eta gainerako masterretarako, ehuneko 40tik 25era. Horrek ehuneko 18ko eta 36ko jaitsiera ekarri ditu, hurrenez hurren, masterren prezioetan.

b) Irakaskuntza berekien eta beste prezio publiko batzuen kasuan, oro har, Gizarte Kontseiluak ezartzen ditu. Gizarte Kontseiluaren 2016ko abenduko erabakiaz, 2017rako tasa eta prezio publikoak onetsi ziren, eta 2017ko ekaineko erabakiaz, berriz, irakaskuntza propioetako prezio publikoak, A3U programaren⁸ kuotenak, kirol instalazioetako jarduerenak, "Nire ikasgelategia" zerbitzuarenak⁹ eta hizkuntzen goi-mailako ikastegiarenak.

Gradu eta master ikasketen prezioak¹⁰ 2017/2018 ikasturterako eta hurrengoetarako.

	Giza eta Gizarte Zientziak	Zientziak, ingeniari-tzak eta osasun zientziak	Erregulatutako lanbide- etarako gaikuntza ematen duten masterrak	Erregulatutako lanbideetarako gaikuntza ematen ez duten masterrak
1. matrikula	16,27 €/kreditua	23,05 €/kreditua	22,67€/kreditua	28,34€/kreditua
2. matrikula	32,55 €/kreditua	46,09 €/kreditua	34€/kreditua	
3. matrikula	70,52 €/kreditua	99,84 €/kreditua	73,67€/kreditua	73,67€/kreditua
4. matrikula eta ondorengoak	97,64 €/kreditua	138,25 €/kreditua	102€/kreditua	

Matrikulan, prezio akademikoak ez ezik, prezio administratiboak ere ordaindu behar dira. 41,15 euro kudeaketa administratiboko gastuengatik, 31,23 euro lehen urtean espedientea irekitzeagatik eta eskola-aseguruagatik: 1,12 euro 28 urtez beherakoentzat eta 13 euro 28 urtez gorakoentzako cum laude aseguruagatik.

- Matrikulak SIGMA aplikazioaren bitartez kudeatzen dira, eta *on line* egiten dituzte ikasleek. Aplikazioak berak ordain-agiria edo ordainketa-gutuna sortzen ditu. Ikasleak aukeratzen du finantza-entitateari nola ordaindu: prezio osoa batera edo kosturik gabeko ordainketa zatikatua eginez.

Egunero, SIGMA aplikazioarekin, finantza-entitateetatik jasotako informazioa prozesatzen da, egindako kobrantzak berdinkatzen dira eta zerbitzu ekonomikoak kontabilizatzen dira. Balizko akatsak eta kontabilitatearen eta SIGMAren arteko aldeak garbitzen dira.

- Matrikulen kontabilitate- eta aurrekontu-erregistrarako kutxaren irizpidea erabiltzen da. Matrikulengatik kobratzeko dauden eskubideen jarraipena, ez aurrekontuan, ez kontabilitate orokorrean erregistraturik ez daudenez, kontabilitatez kanpo egiten da.

⁸ Nafarroako Unibertsitate Publikoko lagunen eta antzinako ikasleen Alumni elkarte.

⁹ Nafarroako Unibertsitate Publikoaren plataforma birtuala.

¹⁰ Matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko, ikasgaien kredituak bider kreditu bakoitzaren prezioa eragiketa egin beharra dago.

Lortutako informazioaren arabera, matrikulengatik kobratzeko dauden eskubideen zenbatekoa, gure txostena egiteko datan, honako hau da:

Matrikulengatik kobratzeko gelditu diren eskubideak	2013/14 ikasturtea	2014/15 ikasturtea	2015/16 ikasturtea	2016/17 ikasturtea	2017/18 ikasturtea	Guztira
Zikloetako matrikulak	5.465	1.949	104	209	0	7.727
Ikasketa propioetako matrikulak	31	0	262	0	145	437
Graduko matrikulak	33.605	24.511	41.600	82.677	130.202	312.595
Graduondoko ikasketetarako matrikulak	0	2.753	7.243	4.634	9.129	23.759
Doktoretzako matrikulak	285	126	63	2.977	4.530	7.981
Berankortasunaren zenbatekoa, guztira	39.385	29.340	49.272	90.497	144.006	352.500
Zordun kopurua	72	69	82	107	151	481

Ikusten dugu matrikulengatik kobratzeko dagoen zenbatekoa 352.500 eurokoa dela, eta 481 zorduni dagokiola. Zorraren ehuneko 41 dagokio 2017/2018 ikasturtari, eta ehuneko 89, berriz, graduako matrikulei.

Unibertsitateak aldizka gogorazpenak egiten dizkie berankorrei, ordain dezaten premiatuz. Gainera, borondatez ordaintzeko aldia iraganda, sistema informatikoak ikasle berankorren espediente blokeatzen du, halako moduz non ezin dituen matrikula berriak egin, edo ziurtagiri edo tituluak eskatu, edo matrikulen-lekualdatzea, eta abar. Azkenean, ikasle berankorrek egintza administratibo edo irakaskuntzakoren bat egin behar duenean, aurrez zor duena ordaintzeko exijitzen zaio.

Unibertsitatearen 2017ko urteko kontuetan, ez dago kobratzeko dauden eskubide horiei buruzko informaziorik.

- Matrikulei aplika dakizkiekeen salbuespenak honako arlo hauetatik heldu dira: bekak, familia ugariak –orokorra eta berezia–, desgaitasuna, ohorezko matrikulak eta indarkeria terrorista eta generoko indarkeria. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

a) Hezkuntza Ministerioaren matrikuletarako bekak zuzenean ordaintzen zaizkio Unibertsitateari bi ordainketa-ebazpenen bitartez –aurrerakina eta likidazioa–, eta aurrekontuaren berariazko kontusail batean erregistratzen dira.

Ministerioak bekengatik 2011/2012 ikasturterako finkatutako prezio publikoaren berdina den zenbateko bat ordaintzen du, ehuneko batean gaurkotua. Zenbateko hori matrikuletarako beken zenbatekotik beherakoa da, hura Nafarroako Gobernuak egiazki ezarritako prezio publikoaren arabera kalkulaturik; hori dela eta, azken horri dagokio aldeagatik Unibertsitateari kalte-ordaina ematea¹¹. Kontzeptu horrengatik 2017ko diru-sarrerak 1,37 milioioak izan dira: Ministerioak ehuneko 94 ordaindu du eta Nafarroako Gobernuak gainerakoa, eta 1.408 bekaduni dagokie.

b) Familia ugarien eta desgaituen salbuespenei dagokienez, ikasleak inguruabar horiek agiri bidez justifikatu behar ditu matrikula egiteko unean, eta Unibertsitateko zerbitzuek dokumentazio hori indarrean dagoen aztertu behar du.

Unibertsitateak Hezkuntza Ministeriotik berreskuratzen du familia ugari orokorrerengatik (hiru seme-alaba eta parekoak) kenkariak. Konpentsazio hori kalkulatzeko oinarria bekak kalkulatzeko dagoen bera da, aurrez aipatutakoa; hau da, 2011/2012 ikasturteko prezio indarduna, ehuneko batean gaurkotua. Kasu horretan, Nafarroako Gobernuak ez du aldea ordaintzen.

Ministerioak bi ordainketa egiten ditu: lehenengoa urrian, ikasturtearen amaieran, eta bere matrikulan familia ugariarengatik beherapena aplikatu duten ikasleen zerrendaren ziurtagiria eman ondoren; bigarrena, berriz, hurrengo urteko martxoan.

¹¹ Hezkuntza publikoaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren 7.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Kontzeptu horri dagozkion diru-sarrerak salbuespenen berariazko partida batean erregistratzen dira; partida horrek 486.708 euroko eskubide aitortuak dauzka 2017an. Diru-sarrera horiek 2015/2016 ikasturtearen likidazioari dagozkio, eta 2016/2017 ikasturteko konturako lehen ordainketari.

Unibertsitateak Ministerioari bidalitako informazioa egiaztatu dugu, 2016/2017 ikasturteari buruzkoa, 2017an eta 2018an kontzeptu horrengatik jasotako diru-sarrerekin. Hobaria duten ikasleak 1.053 dira eta hobariaren guztizko kopurua 727.505 eurokoa da. 2011/2012 ikasturteko prezio publikoak aplikatuta eta haiei ehuneko bata igota, Ministerioak ordaindutako kopurua 583.282 eurokoa da. Aldea, 173.677 euro, Unibertsitateak izandako diru-sarrera txikiagoari dagokio.

c) Gainerako salbuespenek Unibertsitateak diru-sarrera txikiagoa edukitzea dakarte.

d) Salbuespen guztiak ikasleak ordaindu beharreko matrikularen guztizko zenbatekotik deskontatzen dira; egiazki kobratutakoa kontabilizatzean ez da aplikatutako salbuespenen inongo jarraipenik egiten, familia ugari orokorraren salbuespena, arestian aipatutakoa, kenduta.

2017/2018 ikasturteko gradu-ikasketetan aplikatutako salbuespenen zenbatespen helarazi digute; honako hauek dira:

	Onuradunen kopurua	Salbuespenak
Familia ugari orokorra	1.226	890.588
Familia ugari berezia	135	207.613
Desgaitasuna	26	34.446
Terrorismoaren biktimak	5	7.020
Batxilergoko ohorezko matrikula	52	63.786
Genero-indarkeriaren biktimak	5	9.975
Salbuespenak, guztira	1.449	1.213.428

Horrenbestez, matrikulen kudeaketa administratiboa konplexua da, berezitasun ugari ditu eta zama administratibo handia dakar.

Gure gomendioak:

- *Urteko kontuen oroitidazkian informazioa sartzeari matrikulak direla-eta ekitaldiaren itxieran kobratzeko dauden eskubideei buruz.*

- *Matrikulengatik aplikatutako salbuespenen jarraipen bat egitea, haien guztizko zenbatekoa ezagutzeko, kontzeptuaren, matrikula-motaren eta onuradunen kopuruaren arabera.*

- *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen Nafarroako Gobernuako Ogasun Departamentuarekin itun bat egiteko ordaindugabeak bide exekutibotik biltzeko.*

VI.4.8. Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

2017an, transferentzia arruntan eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 60,47 eta 0,7 milioi eurokoak izan dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera horiek Unibertsitatearen finantzaketa-iturri nagusia dira, eta guztizko diru-sarrearen ia ehuneko 80 dira. Hona horien xehekako azalpena:

(Euroak, milakotan)

Transferentzia arruntak	Aitortutako eskubideak, 2016	Aitortutako eskubideak, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketarako hitzarmena	51.639	54.467	5
Ikerketa	3.361	4.282	27
Nazioarteko mugikortasuna	819	1.101	34
Santander Bankuarekiko hitzarmena	398	450	13
Ikerketarako ez diren Europako proiektuak	37	0	-
Unibertsitate-hedadura	98	66	-33
Bestelako jarduerak	26	10	-61
Beste batzuk	8	95	1.187
Transferentzia arruntak guztira	56.386	60.471	7
Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketarako hitzarmena	0	700	-
Ikerkuntza	2	3	50
Kapital-transferentziak guztira	2	703	351

*Auditatu gabeko ekitaldia

2016. urtearekin alderatuta, transferentzia arruntak ehuneko zazpi handitu dira, hau da, 4,1 milioi. Kapital-transferentziak ehuneko 351 handitu dira, zeren eta izaera horretako diru-sarrera bat jaso baita Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenean, inbertsioak finantzatzeko.

2017an, Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenetik datozen diru-sarrerak 55,17 milioi eurokoak izan dira, ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 72 egiten dute eta honako xede hauetarako aplikatu dira:

(Euroak, milakotan)

Finantzaketa	Behin-betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia	Kobratzeko datu goena
Irakaskuntza eta ikerketa finantzatzeko transferentzia arruntak	53.944	53.944	53.944	0
Soldaten % 1 eko igoera finantzatzeko transferentzia arruntak	523	523	523	0
Iruñeko eta Tuterako inbertsioetarako kapital-transferentziak	700	700	284	416
Finantzaketarako hitzarmena, guztira	55.167	55.167	54.751	416

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, bi aurrekontu-partida agertzen dira kapital-transferentzietan, Iruñeko eta Tuterako inbertsioak finantzatzeko, eta 0,7 milioi egiten dute; 2012ko ekitalditik ez zen jasotzen, kasuko hitzarmenetan, inbertsioetarako finantzaketa berariazkorik.

Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko zegoen zenbatekoa Nafarroako Gobernuak ordaindu du 2019ko urtarrilean.

Finantzaketa-hitzarmenak honako bilakaera hau izan du 2013tik:

(Euroak, milakotan)					
Finantzaketa hitzarmena Nafarroako Gobernua	2013	2014	2015	2016	2017
Hitzaizenaren zenbatekoa	51.017	51.751	52.444	51.639	55.167
<i>Aurrekontuko diru-sarrerak, guztira</i>	<i>70.106</i>	<i>71.743</i>	<i>72.460</i>	<i>73.330</i>	<i>76.988</i>
Hitzaizenak diru-sarreretan zenbat egite	73	72	72	70	72
<i>Aurrekontu-gastuak, guztira</i>	<i>71.455</i>	<i>70.558</i>	<i>71.410</i>	<i>75.316</i>	<i>78.201</i>
<i>Hitzaizenak gastuetan zenbat egiten du</i>	<i>71</i>	<i>73</i>	<i>73</i>	<i>69</i>	<i>71</i>

Hau da, Nafarroako Gobernuak izandako ekarpenak nolabaiteko egonkortasuna izan du 2013-2016 urteetan, eta 3,5 milioi handitu da 2017an.

- Transferentzia arruntengatik diru-sarrerak aztertu ditugu, nazioarteratzeari eta garapenerako lankidetzari dagozkionak. Haien aitortutako zenbatekoa 1,1 milioi eurokoa izan da, eta osorik kobratu dira 2017ko ekitaldian.

2016. urtearekin alderatuta, diru-sarrera horiek ehuneko 34 handitu dira; 2017an Europako Hezkuntza Programen erakunde autonomotik, oker bat tarteko, egindako ordainketa batengatik diru-sarrerak aitortu dira; zenbateko hori 2018an itzuli da. Zenbateko hori kontuan hartu gabe, diru-sarrera horien iguera, 2016koekin alderatuta, ehuneko 15ekoa izanen litzateke.

Diru-sarrera horiek, funtsean, SEPItik –ehuneko 73– eta Erasmus mugikortasun-programak finantzatzeko banku-entitate batekiko hitzarmenetik –ehuneko 11– datoz.

Diru-sarrera horien lagin bat hautatu dugu, eta honako hauek egiaztatu ditugu: diru-laguntzaren xedea, aplikatutako kontabilitate-erregistroa, aurkeztutako justifikazioak eta jasotako funtsen aplikazio zuzena bermatzeko egindako kontrola. Horretatik guztiatik arrazoizko emaitza bat lortu dugu.

VI.4.9. Epe laburreko zordunak

2017ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 1,81 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

(Euroak, milakotan)			
Zordunak	2016-12-31	2017/12/31	Aldea (%) 2017/2016
Aurrekontuko zordunak	2.333	2.585	11
Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	194	227	17
Administrazio publikoak	554	512	-8
Hornidurak	(1.216).	(1.511).	24
Zordunak, guztira	1.865	1.813	1

Aurrekontuko zordunak osagai aipagarriena dira. Ehuneko 76 dagozkie 2017ko urteko ekitaldiko zordunei, eta ehuneko 24, berriz, itxitako ekitaldietako zordunei.

Horniduren saldoa, 1,51 milioi euro, lortzen da kobratzen zailtzat hartuta 2015eko abenduaren 31 baino lehen kobratzeko zeuden eskubideak eta 2016an sortutako eskubideak, diru-sarrera atxiki gabeetatik datozenak.

Gainera, kobratzen zailtzat jotzen dira 2016an eta 2017an sortutako eskubideak, kontuak ixteko garaian kobratu gabeko kreditu-aurrerakinetatik etorri eta Unibertsitateko errektorearen edo kudeatzailearen ebazpenez emandakoak, aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Unibertsitateak kobratzeko dauden aurrerakin batzuk emanak ditu, 2016. eta 2017. urteei dagozkienak: 0,97 milioi euro egiten dute. Aurrerakin horiek, funtsean, ikerketarako proiektu eta laguntzei dagozkie, eta kobratzeko dauden aitortutako eskubide moduan ageri dira; ordainduko ez

balira, Unibertsitatearen gerakin orokorra gutxituko lukete. Hori dela eta, 2013tik kobratzen zaila den horniduraren zuzkidura kalkulaterakoan jasotzen dira.

Hornidurek ehuneko 24 egin dute gora, 295.000 euro, 2016koekin alderatuta. Igoera horren arrazoia da, funtsean, eman diren baina 2017an kobratu gabe geratu diren ikerketa-proiektuengatik aurrerakinek, aipatu bezala kobratzen zailtzat jotzen direnek, gora egin dutela.

VI.4.10. Unibertsitatea-gizartea fundazioa

Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko erabakiaz sortu zen. Sorrerako helburu gisa zuen elkarrizketa sustatzea eta Unibertsitatearen eta Nafarroako gizartearen arteko lankidetzaz bideratzea.

Fundazioaren urteko kontuei buruzko finantza-auditoretza egin du enpresa pribatu batek, eta aldeko iritzia eman du. Unibertsitatearen oroitidazkian ez da txosten hori sartu, finantzen egoera-orriekin batera.

2017an, Fundazioak honako magnitude aipagarri hauek izan zituen bere jardura ekonomiko-finantzarioan (aurreko ekitaldikoekin ere alderatu dira):

Fundazioa, 2017	(Euroak, milakotan)	
	2016-12-31	2017/12/31
Funts berekiak	875	871
Pasibo arrunta	1.797	1.849
Aktibo ez-arrunta	79	75
Diruzaintza	1.847	1.716
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	6.841	6.211
Unibertsitateari emandako mandatua aplikaziotik heldu diren diru-sarrerak	364	432
Langile-gastuak	2.162	2.130
Ekitaldiko emaitza	6	-4
Enplegatu kopuruaren batez bestekoa	45,25	44,33

Fundazioak 2017an bere alorretan erabilitako baliabideak hurrengo taulan erakutsi ditugu:

Arloak	(Euroak, milakotan)	
	Diru-kopurua	
Enplegua	4.427	
Prestakuntza	723	
I+G zentrorako laguntza	72	
NUP* sustapena	90	
Hizkuntzak	732	
Zuzendaritza eta euskarri teknikoa	192	
2017an erabilitako baliabideak, guztira	6.236	

Unibertsitateko errektorearen urtarrilaren 31ko 253/2017 ebazpenaren bidez, 2017rako, Fundazioari honako jardura hauek egiteko mandatua eman zitzaion:

- Enpleguaren arloa: Lanerako eta enplegurako orientabidea eta Unibertsitateko ikasleentzako lan-praktikak.
- Prestakuntzaren arloa: Praktiketara dauden tituludunentzako prestakuntza-programak eta irakaskuntza propioak. Titulu propioak, espezializazio ikastaroak eta lanbidedunentzako ikastaro laburrak.
- Hizkuntzan arloa: Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiaren kudeaketa, hizkuntzen ikastaro orokorrak eta berariazkoak eta azterketa ofizialen kudeaketa.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren A3U programa.
- Mezenasgoaren arloa. Beste unibertsitate batzuetako mezenasgoaren esparruko jokamoldeak aztertzea eta unibertsitateko jarduketa-plan bat zehaztea.
- Jerónimo de Ayanz Elektronikako eta Komunikazioetako I+G zentroaren kudeaketa.

Txosten honen III. eranskinean, arlo horietako bakoitzean egindako jardueren adierazle batzuk aipatzen ditugu.

Mandatu horren aurrekontuak 244.212 euroko gehieneko zenbatekoa du. Ebazpen horren eranskinean honako hauek arautzen dira: prozedura, baldintzak, kudeaketa ekonomikoa eta 2017an egindako gastuen likidazioa. Halaber, Fundazioaren jardueren kudeaketa ekonomikoa aipatzen da; Fundazioak bere gain hartzen ditu gomendioan jasotako jardueretatik heldu diren diru-sarreraren bilketa (funtsean, titulu berekiei, hizkuntzei eta Alumni programari dagozkionak); diru-sarrera horiek unibertsitateari ordaintzen zaizkio diru-sarreraren aurrekontuan jaso daitezten.

Fundazioak defizitaren likidazioa aurkezten dio Unibertsitateari. Irakaskuntza propioetako eta hizkuntzen ikastegiko matrikulen bidezko eta Alumni elkarteko kuoten bidezko diru-sarrerengatik fakturak aurkezten ditu (tasak kenduta); Unibertsitateak faktura horiek ordaintzen dizkio Fundazioari eta aurrez jasotako matrikulen bidezko diru-sarrerak itzultzen dizkio Fundazioari.

Horri dagokionez, aipatu nahi dugu ezen, gaur egun, ikusita Fundazioaren kontuak Unibertsitatearen kontuekin bateratuta aurkezten direla, ez liratekeela beharrezkoak izanen bi entitateen arteko gastuen eta diru-sarreraren mugimenduak haiek kontabilitatean egoki jasotzeko; hartara, horrek dakarren kudeaketa eta lan-karga erraztuko lirateke.

Fundazioari emandako mandatuaren likidazio partzialak eta amaierako likidazioa onesteko ez zen ebazpenik eman, zeren eta jo baitzen jada mandatuari onespena emateko ebazpenean onetsirik zeudela.

Fundazioaren 2017ko aurrekontuetan aurreikusitako emaitzak 393.757 euroko defizita jasotzen zuen. Amaierako emaitza 435.536 eurokoa izan da; horrek aurreikusitako defizitak ehuneko 10,61 igotzea ekarri du. Mandatuak ezartzen zuen bezala, aurrekontuan dagoen dirua ikusita, Unibertsitateak amaierako likidazioan aurreikusitako defizit osoa estali nahi du. Hona horien xehekako azalpena:

Arloa	Hasierako aurrekontua	Likidatutako gastua	Aldea (%)
Hizkuntzak	165.978	282.273	70
Alumni programa	36.622	60.140	64
I+G zentroa	41.611	89.237	114
Guztira	244.211	431.650	77

Fundazioari gomendatutako jarduerengatik Unibertsitateak aitortutako diru-sarrerak 0,81 milioioak izan dira; hona xehetasunak:

Diru-sarrerak	Diru-kopurua
Titulu berekietako matrikulak	440.063
Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegia	307.265
Alumni programa	34.062
Bestelako diru-sarrerak	30.471
Guztira	811.861

2017an, Fundazioan, 49 pertsonak egin zuten lan: 40k kontratu mugagabearekin eta bederatzid aldian baterako kontratuarekin. Abenduaren 31n egiazki ari ziren langileak 43 ziren.

2017an zehar, 10 lanpostu betetzeko lau hautapen-prozesu egin dira: bi kontratu mugagabeak dira eta zortzi aldian baterako kontratukoak. Administrazio laguntzaileentzako kontratu mugagabe bi lanpostuetarako hautapen-prozesu osoa berrikusi dugu.

Oro har, berdintasunaren, publizitatearen, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak betetzen dira. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra daukagu ezen egindako hautapoben eta elkarrizketen emaitza partzialak, bai eta hautapenaren behin betiko emaitza ere, ez direla argitara eman; bai komunikatu zaizkie, ordea, izangaiei, soilik adieraziz lanposturako hautatu diren ala ez diren hautatu.

Gure gomendioak:

- *Unibertsitatearen oroitidazkian jasotzea, Fundazioaren egoera-orri finantzarioekin batera, finantza-auditoretzaren txostena.*
- *Fundazioarekiko mandatuaren likidazio partzialen betebeharraren eta ordainketaren aitopena egiteko ebazpenak onestea.*
- *Aztertzea komenigarria ote den Fundazioari mandatu bidez enkargatutako jarduerengatiko matrikulen kobrantzak kontabilizatzeko egungo prozedura aldatzea, kudeaketa errazte aldera.*
- *Fundazioko langileen hautapen-prozesuen emaitza partzialak eta amaierako emaitza argitaratzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko martxoaren 27an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

I. ERANSKINA. ADIERAZLE EZ FINANTZARIOEN BILAKAERA

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den izaera ez-finantzarioko adierazleek 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietan (2015/16, 2016/17 eta 2017/18 ikasturteetan) izandako bilakaera.

Informazio ez-finantzarioa	2015 2015/16 ikasturtea	2016 2016/17 ikasturtea	2017 2017/18 ikasturtea
Campusa	2	2	2
Langileak.			
Langileen guztizko kopurua	1.521	1.538	1.611
AZLak, guztira	458	456	469
AZL funtzionarioak/AZLen guztizkoa ratioa	72	71	70
IILak, guztira	863	885	901
IIL funtzionarioak/IILen guztizkoa ratioa	39	37	37
IIL-DOBak, guztira	597	601	618
IIL-DOBak/AZLak ratioa	1,30	1,32	1,32
IIL doktoreen kopurua	569	589	634
IIL doktoreak/IILen guztizkoa ratioa	66	67	70
Langile elkartuak	353	375	371
IIL elkartuak/IILen guztizkoa ratioa	41	42	41
Langile ikertzaileak	200	197	241
Titulazioak eta ikasle-postuak			
Eskainitako graduak titulazio ofizialen kopurua	20	20	21
Graduko titulazioetan eskainitako ikasle-postuak	1.755	1.755	1.720
Berritik sartutako graduak titulazioetako ikasle-postuak, matrikula egindakoak	1.715	1.713	1.648
Unibertsitate masterren kopurua	31	28	28
Titulu berekien kopurua	18	26	30
Ingelesez eskainitako graduak ikasgaien kopurua (zikloa+gradua)			
Ikasleak			
Ikasleen guztizko kopurua	8.308	8.134	8.059
Ikasle kopurua (Zikloak)	216	17	5
Ikasle kopurua (Gradua)	6.834	6.912	6.958
Ikasle kopurua (Masterra)	794	753	744
Ikasle kopurua (Doktoretza)	464	452	352
Ikasleak (zikloak + graduak)/IIL-DOBak ratioa	11,81	11,53	11,27
Ikasleak (zikloak + graduak)/AZLak ratioa	15,39	15,20	14,85
Nazioarteko Mugikortasunetik heldutako ikasleen kopurua	226	238	287
Nazioarteko Mugikortasuna dela-eta kanpora bidalitako ikasleen kopurua	354	359	361
Graduatutako ikasleen kopurua (Zikloa + Gradua)	1.341	1.184	1.275
Ikasketak amaitu dituzten ikasleen kopurua (Masterra)	388	414	378
Ikerkuntza			
Ikerketa-zentro eta -institutuak	4	5	5
Ikerketarako katedrak	9	8	10
Ikerketa taldeak	105	106	105
Ikerketa taldeetako langile ikertzaileak	890	1.124	1.103
Irakurritako tesiak	67	60	119
Aitortutako seiurtekoak, SHU	751	779	810
Datu baseetako argitalpen nagusiak	1.104	1.098	1.257
Egindako ikerketa-kontratuen kopurua (LOUren 83. artikulua).	146	142	160
Lehia-izaerako deialdi publikoetan emandako inbertsio-proiektuen kopurua	40	76	70
Emandako patenteen kopurua	8	10	2
Sortutako "spin off"en kopurua	2	1	3

II. ERANSKINA. UNIBERTSITATEKO EGIAZKO LANGILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31n

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	2015	2016	2017
Funtzionarioa	337	329	331
Unibertsitateko katedraduna	84	83	80
Unibertsitateko titularra	231	227	235
Unibertsitate eskolako katedraduna	4	3	3
Unibertsitate eskolako titularra	17	15	12
Besterik	1	1	1
Kontratudunak	526	556	570
Laguntzailea	5	1	-
Doktore laguntzailea	54	57	61
Kontratututako doktorea	72	72	69
Behin-behineko kontratupeko doktorea	30	39	53
Irakasle elkartua	353	375	371
Ordezkoak	12	12	16
Ikertzaileak	3	4	4
IIL guztira	866	889	905
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			
Funtzionarioa	330	325	326
A maila	48	49	52
B maila	56	56	58
C maila	101	100	98
D maila	110	105	103
E maila	15	15	15
Kontratudunak	114	131	143
A maila	20	21	25
B maila	29	26	30
C maila	22	23	27
D maila	27	40	40
E maila	6	7	7
Besterik (behin-behineko langileak)	14	14	14
AZL guztira	458	456	469
Langile ikertzaileak (LI)			
Lehia bidezko deialdi publikoetako ikertzaileak	110	106	104
Unibertsitateko irakasleen prestakuntza (UIP)	6	6	6
Langile ikertzaileen prestakuntza (LIP)	21	21	16
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	72	69	70
Ramón y Cajal	2	3	1
Juan de la Cierva	2	1	3
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	8	6	8
Proiektuen, kontratuen eta ikerketa-taldean kargurako ikerketa	90	91	137
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	74	76	115
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	16	15	22
Langile ikertzaileak, guztira	200	197	241
Langileak, guztira	1.524	1.542	1.615

III. ERANSKINA. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOAREN JARDUEREI BURUZKO ADIERAZ-LEAK

BARRUTIA	Jarduera	Adierazlea	Zenbat
Enplegua	Laneratzea	Lan-eskaintzengatik elkarrizketatutako pertsonen kopurua	117
		Lan-eskaintzen kopurua	68
	Lan arloko orientabidea	Orientabidea eman zaien pertsonen kopurua	3.196
		Urtean hasitako praktiken kopurua	1.390
	Enpleguko praktikak	Enpresekiko eta erakundeekiko lankidetzahitzarmenen kopurua	141
Prestakuntza	Irakaskuntza berekiak	Titulu berekiak	12
	Etengabeko prestakuntza	Espezializazio-ikastaroak	5
		Profesionalentzako ikastaro laburrak	19
	Praktiketan ari diren tituludunentzako prestakuntza	Tituludunen praktiketarako prestakuntza-ekintzak	104
		Nafarroa Beketako prestakuntza-ekintzen kopurua	8
	Nafar Lansarearen etengabeko prestakuntza	Profesionaltasun-ziurtagiriak	4
Hizkuntzak	Hizkuntzak	Ikasle kopurua	906
	Azterketa ofizialak	Ikasle kopurua	1.746
Alumni	Antzinako ikasleak erakartzea	Alumnin izena emandakoak	739

